

"Euskara", XIX. mendeko aldizkari alemana

Joxe Azurmendi

Villasanteren *Historia*-n, zenb. 455 adb., aipatzen da, aipatu; baina uste dut, ez dela oso ezaguna, *Euskara* izeneko aldizkari bat Alemanian egon zela XIX. mendean, RIEven eta aurretik. Euskal ikerkuntzako aldizkari bat. Julio Urkixo harpidedun izan zen, hogeita bi urte besterik ez zeukanean. Nik neuk batere ustegabea eta Dr. K. Kramm lagunaren bidez aurkitu dut, Hamburgoko Unibertsitateko Bibliotekan, xit arraro omen den aldizkari honen kolekzio oso bat. Dirudenez, beste kolekzio gehienak edo denak, Alemania Federalean behintzat, galduak edo dirateke, gerrate denboran. Ikusia dago: euskaldunon gauzak ez dira Gernikan bakarrik bonbardatzen eta galtzen.

Münsterko Unibertsitatearen bitartez enkargatu nuen. Beldur nintzen, alferrik izango zela. Datuak ez neuzkan oso zuzen, baina tira (ez noiz sortua zenik, ez non, argitu ahal izan bait nuen ondikoz). «Datuokin aurkitu ahal izanen dugu, Alemanian inon aurkitzekoa bada», esan zidan bere ofizioaren segurantziaz bibliotekariak. Eta konputatzaileari sartu genizkion datuak. Etortzeko beste batetan.

Berriro joan nintzaionean, larrosa bat udaberrian baino irri-partuago hartu ninduen bibliotekariak: han zeukan kolekzio

osoa mahain gainean. Bitxi bat, omen. Orrialdeak pasatzen baino kareziatzenago ari zen. Bitxi bat. Baina neu ere bitxitasunik aski banintzaion honez gero: «kolekzio honetaz interesatu dena zein den, galdetzen dit Hamburgoko bibliotekariak». Euskalduna naizela. Oh!, eta berekin narama, bibliotekan Euskal Herriari buruz dagoen dena erakustera. Hori dena ezagutzen nuen aspaldian. Baina ez da ezer kostatzen gortesia piska bat. Mila bider esku artean izan dudan Leizarragaren Strassburgoko argitalpena ateratzen diot apaletatik, bere zigilu nazia eta guzti: begira, esaten diot, eta zer den baino ere lehen, zigilu nazia ohartu du, baina ez du ezer esan. Denek horixe egiten dute. «Gauza batzu Erromaniketako sekzioan dauzkagu eta beste batzu antigoaletako sekzioan, keltikoaren ondoan», eskusatzen zait. Konplikatua dela euskal gauzak katalogatzea, esplikatzen dit; baina euskarari buruz bakarrik sekzio bat osatzeko dinarik ez daukatela. Nire partetik, betiko errosarioa esplikatu diot, rituala betetzeko: badakizu, gu ez garela erromanikoak, etab., baina keltikoak ere ez. Orduan, zer? Bibliotekari batentzat, nonbait katalogatzerik ez dagoena, egon ere ez dago, noski. «Gu arbolatik jaitsi ginen». Ez ditut eskuratu nire aldizkariak, hala ere, ETA zer den esplikatu behar izan baino lehenago... Gero ikusten dut, aldizkariak, beren Foruak eta independentzia defendatzeko ez adorerik eta ez kemenik izana leporatzen diela euskaldunei. 1886an sortu zen Berlingo *Euskara*.

«EUSKARA», Organ für die Interessen der «Baskischen Gesellschaft»

«Baskische Gesellschaft», «Société Basque» edo, euskaraz esateko, Euskal Elkargoa, 1886ko Apirilaren 1ean sortu zen, Berlinen. Estatutuak otsailean eginak zituen. Aurretik deia zabaldua zuten prentsan, lagun bila, testua ez bait dut inguratu ahal izan. Helburua: euskararen alde eta euskararen ikerkuntzarako interesa biztea. Estatutuak alemanez eta frantsesez publikatu zituen.

Euskara aldizkaria, h. d., Elkargoaren interesen organoa, 1886ko urriaren 1ean agertu zen lehenengo aldiz, Berlinen, K. Hannemann zuzendari zuela eta Th. Linschmann idazkari, *chipitasunan anditasuna lo egiten du* dibisarekin lehen orrian (2. zenb., or. 16, zuzendurik datorrena: «chipitasunean anditasunak

lo egiten du»), 8 orrialdetako denera. Lehen zenbaki honetan dator Elkargo Estatutuen argitalpen alemana (2.ean frantsesa). Hasieran eta bukaeran, harpidedun eta lankideei abisuak, hiru hizkuntzatan (al., fr., esp.).

W. van Eys-ena da lehen artikulua: «Le dialecte de Dechepare». Eta segituan hasiko dira eztabaidak: van Eysek Vinson-i, Vinsonek van Eysi, atzera van Eysek..., pika eta errepika, polemika, euskal gauzetan beti ezagutu dugun bezain ugari dabil hemen ere. Batzutan, jaun prestu eta akademikoongan usteko ez genukeen zakarkeriaz. Bonaparte, esate baterako, zahartzaroan ez zen nonbait odol hoztu egin, Orixeren amona Mari Axuntxi bezala, odol berotu baino. Edo gaiztotu. Besteak ere, van Eys eta, ez dabilta zetazko eskularruekin. 10. zenbakian (or. 73-74), *Euskara-k*, Bonaparte hilberriari gorazarre ondo merezi bat eskaintzen diorean («mende honetako hizkuntz jakitunik handiena eta euskal gaietako ikertzailerik inportanteena»), ez du haren polemiken garratzasuna isilpean pasako.

Aldizkariak ez zeukan aldizkotasun jakinik, noiztik noiza agertu. Nahiko materiale biltzen zuenean, agertzen zen itxuraz: denera 17 zenbaki atera zituen. 1896ko uztailean utzi zion agertzeari: beraz, hamar urte eskas ihardun zen, urteko bi zenbakitara ailegatu gabe. Aldizkariaren gorputza, artikuluek, handik eta hemendik etorri diren oharrek (polemikaz, maiz), miszelaneak, osagarri eta zuzenketek, eta Elkargoaren albisteeak, osatzen dute. Zenbaki bakoitzak 8 orrialde; orrialdeak jarraigoan zenbanatzen bait dira, denera 144 orrialde. Artikulu gehienak alemanez daude; ingelesa, frantsesa eta euskara dira beste hizkuntza erabilienak; apur bat gaztelania. Baina euskara, estudioaren edo estudiorako objeto bezala bakarrik erabilia; ez Autoreon espresio medio bezala.

Aldizkari donkixotesko bat

Aldizkaria ikaragarri desberdina da. Erreberentziaz irakurri ohi dituzun Dodgson, Vinson eta horien artikuluen aldean, igoal aurkitzen duzu «Lantza bat euskararen alde hizkuntza unibertsal bezala»: Autoreak, euskara, Volapuk baino askoz ederragoa eta egokiagoa dela demostratzen bait dizu, gaintetik eta azpitik, hizkuntza unibertsala bera izateko. Euskara zein hizkuntza ederra, poetikoa, filosofikoa, doinu gozokoa, etab., etab. den, oraindik ez dakienak, Hannemann-en artikulua hau irakur dezake... Eta,

esan bezala, K. Hannemann hori *Euskara*-ren zuzendaria bait zen, artikulua, euskarari buruz ez du gehiegi balio, baina are gehiago balio du, aldizkari sortzaileen izpiritua ikusteko.

Etimologistek eta misterio sailduen argitzaileek eta konparatistek (euskara eta iberikoa, eta etruskoa, eta berberikoa, eta egiptoara, eta bearnesa, eta georgikoak eta armenikoak eta semitikoak eta...), ia-ia dena argi samarturik uzten digute: haritz keltikoa eta supazter iberikoa esplikatzen dizkigute eta «la couvade»; eta, finean, sorginkeriazko begigaitza zer den ere, jakinaren gainean gelditzen gara. Hola enteratzen gara, 1580an iadanik baziñela «basque» hitzaren etimologi bila enplegatzen zirenak, eta Léon Trippault, sieur de Bardis, batek *ebáskein* (pubescere) grekotik zekarrela; inondik ere gaxte-kozkontzea euskaldunon orijinalitate pribatiboa da eta... Gure izenaren etimologia baino lehenago, formaren problema legoke; eta *Euskara*-ko jendeok halako mordoak erakusten digute: euskal / eskual / escharans, — hesku, heuskara / haskara, hasquara... (or. 15, 22, ...128); vasco / basque / basclense / bascle... konta gabe. Zein da forma jatorrizkoa? Badu bere graziatxoa, izen bila dabilkigun gure izan honek, agian zer den ez dakielako, nola deritzan argitu ezinda. «Je propose Gothique HUS = maison comme origine par rotacisme de HURCO et de Euskara. Selon M. Biedermann de l'Université de Zürich, Ascara serait la forme la plus correcte et dériverait du latin Bascus — On dit souvent que *Esku* main explique le nom indigène des Basques — dans ce cas ne serait il possible que leur voisins les Celtes leur ont appliqué l'autre nom Basci ou bien en traduisant le nom indigène par le Celtique *bas*=*main*, ou bien en les apellant les hommes des forêts — *Baso*-ko, c'est à dire *silvatici* = sauvages. Je crois que le Basque a dû avoir un digamma autrefois» (or. 62)...

Etimologi lanetan, batzu lan interesgarriak izan litezke (laket/placet, zilar/silver...), gehien-gehienak alferrak iruditzen zaizkit neuri: han enteratzen gara, *Roma* eta Horma kideak omen direla (eta igoal dia!?!); *Tartessos*, «sei-arte-itsaso»; eta *Nu-mantia* ere euskal izenen bat, «an-uman-etxe» edo (eta zer da hori?). *Arreba*, «arrari ebakia» da eta arraren nagusitasuna dokumentatzen du —beraz, feministek euskararen estrukturak atakatzan hasi behar dute— *aizpa/aizta* ere «aitaren hankatik sortua» omen da eta (or. 121) (hanka biblikotik izanen da)... Halako batetan, van Eys eta Uhlenbeck, etimologista guztiokin haserreturik altxatzen dira. Baina harrikada batzuk ez dute inoiz

puskatu ilargia: etimologismoa ideologia bat da, eta etimologisten eta konparatisten parrandak berdin jarraituko du *Euskara*-n. Schwerdtfeger izeneko mendi goarda batek, behintzat, astirik eta afizio galantik izan du franko, bere Koenigsberg kantianoan, elukubraziorik elukubratuenak egiten jarraitzeko. Baina, bere modura, gizon errealista genuen mendi goarda hori, inondik ere: harpidedun eta Elkargo lagun bezala pagatzen zuenaz gainera, estra pagatzen zuen, bere artikulua publikatzeagatik... Bestenaz, ez nuke jakingo esaten, jaun horren izkribuetan, hainbat asmakeria artean, zenbat egia —Dichtung und Wahrheit— dagokeen. 15. zenbakiari eranskin separata bat oso-osea berea du, feniziarrei buruz (separata hau aparte kontatzen bada, *Euskara*-k 18 zenb. atera zituela esan genezake).

Dirudenez, Elkargoko laguneren eta harpidedunen kuotak eta argitarazleen idealismoa, beste finantz oinharririk ez zuen enpresa guzti honek. Diru apur horiekin, aldizkariari eutsi ezzen, biblioteka polita ere bildu zizuten.

Aldizkari zientifiko bat

Beharbada Urkixo gazteak, bestela ere (Cejador irakaslearekin eta) egin behar izan zuenaz gainera, bere eskarmentutxua egin du *Euskara* bizitza laburreko aldizkariari, RIEV hobeto orientatzen jakiteko; alegia, diziplinatukiago, «el refugio y el puerto seguro de todas las fantasías, cuando no de todas las locuras» (L. Michelena) bihurtu gabe.

Zientifikotasuna beti ere gauza erlatiboa izango da, baina *Euskara*-k, asmoz behintzat, aldizkari zientifikoan izan nahi du. Elkargo laguntarako, bada, «batez ere eruditoak, filologoak, etab., hizkuntza honekin enplegatzen direnak edo hura beren ikerkuntzen objektu bihurtu nahi dutenak» bilatzen dira.

Aldizkariaren merezimendu zientifikoak epaitzea ez dagokit niri. Gomendio aski dirudi, hala ere, kolaboratzaileen artean holako izenak aurkitzea: van Eys, Vinson, L.-L. Bonaparte, Dodgson, Schuchardt, v. Stempf, Uhlenbeck... Prof. Mahn, halaber; erromanista handi hau, Euskal Elkargoaren ohorezko bazkide, bi obra inportanteren Autore bezala presentatzen zaigu aldizkarian: *Denkmäler der baskischen Sprache*, 1857 [Monumenta euskérica, guti-gorabehera] eta *Analytischer Kommentar mit Glossar zu den Denkmälern der baskischen Sprache*, alegia,

aurrekoaren iruzkin analitiko eta glosari. Lankide dira, orobat, K. Hannemann, langile porrokatu ageri dena; eta Th. Linschmann, Weimarko pastorea, Elkargoaren arima dirudiena. Azkeneko hirurok, adibidez, ez dira aipatzen Onaindiaren *Euskal Literatura*-n: eta Onaindiaren *Euskal Literatura*-n aipatzen ez den batek, bai ote dauka, gero, esistitu izateko eskubiderik? Villasanteren Historian ere, ez Mahn eta ez Hannemann aipatzen dira; eta Linschmann, RIEVen Etxeberriri buruz agertutako zerbaitegatik eta Schuchardtek prestaturiko Leizarragaren Strassburgoko argitalpena egin izanagatik (Schuchardten hitzaurrean, ordea, ez da Linschmann goraiatzen bakarrik; *Euskara* zena ere aipatzen da, Leizarraga berrargitaratzeko asmoak han biztua dirudi eta).

Aldizkarian ez zaio euskarari bakarrik begiratzen: adibidez, 3. zenbakian W. Brambachen azterketa bat dator euskal musikari buruz, *Ueber baskische Musik* (or. 17-19). Baina hizkuntzari begiratzen zaio gehiena: hor dauzkagu Etxepareri buruzko Vinsonen eta Stempfen oharrak, etc. Edo Capanagaren hitz bitxiak (Novia de Salcedo-ren Hiztegian ere jaso gabekoak, alegia), hala nola, *anza*: reliquia, resto, *maia*: amenaza, etab. (or. 111).

Interes handia, materiale bilketari dagokio: alde guztietatik biltzen dira komunikatuak, norbaitek Bordelen pastoralen batzu ikusi dituela, katiximaren bat Londonen, non dabilizan eta zer dabilizan Alemanian aurkitzen diren Leizarragaren bi esenplarrak, errefrau bilduma bitxiren bat desagertua dela inoren eskuetatik, Darmstadtan ba omen dela beste errefrau bilduma bat (1596), etab.

Euskara hau interesgarri da, baita, XIX. mende bukaerako urteotan euskaraz zer agertzen den ikusteko ere: deboziziozko paper asko, baina *California*-ko *Euskal Herria* ere bai, Los Angelesen agertua, erreseinatzen da; eta *Eskualdun laborarien adiskidea*, *Eskualdun Gazetaren Almanaka*, *Armanak Uskara*, *Fedearen Propagazioneko urtekaria*, eta berriz ere Santo Tomas-ko *Almanaque bilingüe*. Baita titulu gozo askoak ere: *Euskal ari fiñaren iskardea*, *Cristaubaren aingura*, *San Inazio achurlari p. birtuteak*, *Perlasco colier bat* (Paris, 1879), *Cocinan ikasteko liburua*, *Eletzionetako catichima eta Apehezen dretchoak eta eginbideak eletzionetan...* Hemen daude erreseinaturik Felipe Arrese ta Beitiaren *Euskaldun baten gogoraziñuak*. Eta *Bizkaya por su Independencia por Arana eta Goiri'tarr Sabin*, Bilbao 1892.

Nola esaten da euskaraz «libro de bolsillo»? «Sakelako liburuchka», Baiona 1892.

Urkixok RIEVen egingo duen bezala, *Euskara*-n ere aurkitzen

dugu textu zahar ederrik, duda gabe, eskuratzen zailak zirelako eta eruditoen artean ezagutarazteko: Leizarragaren atal hautatuak, «Heuskalduney» zati hura adibidez («on n'a jamais réimprimé le texte ni publié une traduction», abisatzen bait digu {Dodgsonek}).

4. zenbakian Bonav. Vulcaniusen 1597ko euskal hitzen zerrenda publikatzen da (Mariano Sículorena 1533koa da) eta flandriar jakitun haren eritzi batzu euskarari buruz (Specimen Cantabrigae linguae): «...est autem cantabriga lingua, quae... vulgo Bazque, siue Bazcuence appellatur» (Euzkadiko Z deabru hori aspaldian dabilkigula nonbait axioak egiten, arraio halakoa! Beharbada Bizkaia —«quae hodie Vizcayna siue Vasconica vocatur... nunc vero vulgo Bazque»— eta bazque nahasten dira?). Gero, betiko mitoak aurkitzen ditugu euskararen zaharra eta garbia, euskal jendearen basakeria («gentes bellicosissimae, — gentis indomitae farocia»). Erdal hitz asko sartu dela euskarari, baina euskaldunek zainduko balute, zaindu, edozer gauza adierazteko ez lukeela hitz estraino beharrik. Nola maltzurkeriaz zabaldu izan den, idazterik ez dagoen hizkuntza dela euskara, baina ez jauna, idatz litekeela («quasi vero lingua quae pronunciaripotest scribi nequeat»). Etab. Gero 111 hitzen zerrenda, Linschmannek uste duenaren kontra, ez dirudiena Leizarragari hartu dionik (berak ere, «in meum usum studiose iamdudum collegeram»): *adbz.*, *andrea*, domina eta *emazthea*, mulier; *arrebua* (sic), soror; *beraz*, merces; *bertan*, statim; *çahagri*, vinum (eta *ardo*); *cubac*, utres; *echiaz*, digitus; *egun*, hodie; *gaitzerrategac*, obtrectiones; *non*, quia; *vncia*, naucula; *vria*, villa. *Hi* da tu, baina *eure* tuus; *bacust*, video, *edatendot*, bibo eta *lonaca*, dormio; *nauc*, sum. Eta «halaiotz», Vulcanius honek *halaiotz*, propterea, dakar (halacotz?). Eta zenbakiak. (Leizarragak arno, haragui, anaye... esango lituzke: ez, ardo, araguaia, anaya).

5. zenbakian, Scaligeroren mendi basatitako jende basatiaren euskarari buruzko testuak («nihil barbari, aut stridoris, aut anhelitus habet: lenissima est et suavissima: estque sine dubio vetustissima...»). Non hitz egiten da euskaraz? Honela Vulcaniusek: «Cuius usus hodie est non in Vizcaya tantum, verumetiam in finitimis ei et circumiacentibus prouinciis, Alaba, Guipuzcoa, Nauarrae etiam regno et Bearnensi ditone». Eta Scaligerok: «Cantabrisimus incipit a suburbicarijs part. Baionae Lapurdensium, et itinere sex aut septem dierum in intima montanae Hispaniae extenditur. Galli omnes qui ea lingua utuntur,

vocant *Bascos*, vel *Basculos*. Hispani Regionem in qua illa dialectus locum habet, generali nomine *Bascuença* vocant» (ik. or. 29 eta 36).

Euskaldunak edo euskara agertzen dituzten testu zahar kurioso gehiago ere (Girart de Roussillon, etc.) badator *Euskara*-n. Baina batek merezi du batez ere nire begirapena.

A. von Harff zalduna

Arnold von Harff zalduna, XV. mende bukaeran pasa zen Euskal Herrian gairi, Konpostela bidean (edo «Jaume bidean», Zegaman bide hari deritzaionez). Eta, dirudienez, bidean ez zen ibiltzen errosarioa errezatzen bakarrik. Bidaztiak premiazkoen dituen hitzen zerrenda bat utzi digu: *ogea* (ogia), *arduwa*, *oyra* (ura), *aragi*, *gasta*, *gaza* (gatza). Gortesia piska bat ere bidean ondo bait dator: *gangon dissila* (gabon dizula), esaten, irakasten dio zaldunak erromesari. Eta, dena arta bait da gure zalduna erromes gaisoaren gorputzeko premia suerte oroz, ohea (*huetza*, lastoa; edo ohatzea) eskatzen irakasten dio; eta, ohearekin, lastarterako, ohalaguna. Baina, ohalaguna eskatzeak, ikaragarri esaldi konplikatua izan behar derrigor euskaraz: *schatuwa ne tu so gausa moissa!* Hori entzun eta ohera laguntzeko prantatzen zen neska euskaldunak, ez zeukan asko entenditu beharrik.

Filologoek eta euskaltzaleek eta, ordea, gauzak hobeto ulertu nahi izaten dituzte: hori da komeria («nahi duzu gau...?»).

Mitxelenak, *Textos arcaicos vascos*, 1964, 63 ss., Gaveli hartuta aipatzen du von Harffen euskal hitz eta esaldi zerrenda: Gavelek 1922an eman zuen testua argitara, — *Pascaysche spraiçh* deabru hori. Mitxelenak ez, eta dirudienez Gavelek ere ez du aipatzen *Euskara*. Alabaina, gutienez Gavel baino hogei-tamar urte lehenago hemen enplegatzen ziren Linschmann eta Vinson testu zahar horrekin: Linschmann, deskubrimendua berak egina zuelakoan, bozkarioz (zenb. 10, or. 79) eta orain badaezpadan haren ohorea erreklamatu nahi genuke; Vinson, besteak beste, *schatuwa*, etc. orapiloa askatu ezinda, ondorengo beste denak bezalaxe. Mitxelenaren liburuan azaltzen ez den (Gavelenean ez dakit), sarreratxo batekin abiatzen da von Harffen testua, aurrean dudan argitalpen honetan: «Item in Pascayen hauen sij eyn eygen spraiçh die gar buese ze schrijuen is, der ich etzliche woert behalden haue, as hij onden

geschreuen steyt» (Bizkaian badute beste hizkuntza berezi bat, oso idazkaitza, hitz batzu jaso bait nituen, hemen behean idatzita dauden eran, — uste dudanez).

Von Harffen ortografiarekin (ezer izatekotan, horixe da «gar buese») eta, ohetik kanpora ere, hartzen dakien libertateokin, jakina, oso hieroglifiko bihurtu dira euskal hitz (*hytzokosanma*, etxeko jauna, Linschmannek, ulerkaitz egiten zaiola aitortuz ere, igarri duenez) eta esaldiak; baina enigmatikoena, harako *schatuwa* eta hura, «hermosa doncella, venid a dormir conmigo». Linschmann pastorea ez da ezer akalaratzen (nesk)atuwa horrekin. Vinsonek «neskatua eneki lo'gitea (edo lo'gin) nausu» (nahi duzu), proposatzen du, baina, testuaren gainean baino gehiago, von Harffen itzulpen alemana euskarara berritzuliz aurkitua duke esplikazio hori. Linschmann gaisoari, *gangon dissila* hark ere burua nahasten dio. Vinsonek, ordea, bai laster ezagutu, zer den hori.

Etxepare, Leizarraga, Voltaire

Etimologisten arteko gerra kastaezinak eta lekaio/odol gaçaiok aparte, aldizkarian leku handi bat, Autore zaharrek betetzen dute. Zein da justu Etxepareren euskalkia, edo subeuskalkia? Zer egiten du «ezen» honek bertso honetan?... «Traduction littérale des Poésies de Dechepare avec notes explicatives».

Leizarragak nola itzultzen zuen, latinetik, frantsesetik, ala grekotik? (ik. or. 61, 87, 96, 107...). Oker ez banago, asko ez duela Oregik eta Arestik *Euskera*-n (alegia, e-z; Euskaltzaindiaren aldizkaria eusk-*era* bait da, ez eusk-*ara*) berriro eztabaidatzen zutena. Eta Bonaparte, Vinson eta Dodgson ez beste, Schuchardt-ek ere tratatu zuena (ik. Strassburgoko argitalpenaren hitzaurrean, 1900, adbz. or. LXXVIII: itzulpen frantsesa baino Leizarragarena grekoari lotuago deneko pasarteak).

Guretzat, esan nahi dut, zale soilarentzat, espezialistarik izan gabe euskal filologian edo literaturan, *Euskara* aldizkaria bitxitasunez eta gauza jakingarriz beteta dago. Nik uste, espezialistek ere gauza bitxirik franko aurkituko luketela. Voltaire-ren Tresoraz ematen diren berriak (ik. or. 22, 31, 38, 39, 70...), adbz., interesgarriak iruditzen zaizkit, inork begira litzan.

Testu zaharren argitalpen eta argitalpen asmo: bi anekdotatxo

Esaten nuenez, *Euskara*-n zenbait testu zahar eskurakaitz ematen da ezagutzera. Batez ere Leizarraga.

Behin, Dodgsonnek, Etxepare argitaratzeko ideia izan zuen. Eta, behar bezala, Parisa jo zuen. Parisek, beti euskararen alde guztiz arduratua, hona zer erantzun zuen:

République Française, Ministère de l'Instruction Publique et des Beaux Arts, Paris 3, Sbre 1889.

Monsieur, vous avez appelé mon attention sur un ouvrage conservé à la Bibliothèque Nationale et intitulé les «Poésies Basques», de Bernard Dechepare (Bordeaux 1545). Le volumen dont il s'agit est en effet très rare; l'exemplaire de la Bibliothèque est même réputé unique. Il pourrait y avoir intérêt, tant au point de vue de la philologie qu'à celui de l'histoire de l'imprimerie [Euskal Herririk ez da ageri!], à en faire exécuter un facsimile, ainsi que vous en exprimez le voeu. La Bibliothèque Nationale n'a malheureusement pas dans les crédits qui lui son affectés de fonds qu'elle puisse appliquer à une semblable entreprise. Mais si vous connaissiez quelque personne disposée à faire de ce travail l'objet d'une entreprise privée, je m'empresserais de la recommander à Mr. l'Administrateur Général de la Bibliothèque qui lui donnerait volontiers toutes les facilités nécessaires à cet effet. Recevez, Monsieur, l'assurance de ma considération très distinguée.

Le Ministre de l'Instruction Publique et des Beaux Arts, pour le Ministre et par autorisation, Le Directeur du Secrétariat et de la Comptabilité, **Charmes**.

Xarmant, xarmant! Euskara, Frantzian, entrepresa pribatua da.

Hurrengo urtean, Leizarraga argitaratzekotan zebiltzan, Linschmann eta. Horik entrepresa pribatuak direnez gero, zein aurkituko eskuzabalik, eta dirudunik? Bonaparte hila zen. Linschmannek d'Abbadie-gana jo zuen, lehenago Novia de Salcedo-ren Hiztegia berak finantzatzeko eskaintza egin zuela oroituz. D'Abbadiek erantzun dio, berak eskaintza egin zuela, bai, baina kondizioak ere ipiniz, eta kondiziook ez zizkiotela onhartu, «and I spent all my money in gifts to the french army» (ez du esaten zein kondiziotan), alegia, bere diru guztiak frantses Armadari eman zizkiola! Hori 1870ean zen eta alemanak Sedan gogoratuko zuen, ncski; guk, Parisko Komuna zanpatzen agian d'Abbadieren xanponek Mac-Mahoni Sedanen baino zerbitzu

hobeak egingo zizkiotela pentsa genezake. Leizarraga publikatzeko ideia, interesgarria iruditzen zaio, bai, baina ez, ez oso interesgarria («only a few scholars would purchase it»)... Azkenean, Leizarragaren publikazioa, Vienako Zientzi Akademia Inperialaren laguntzaz egin da: Austrian, nonbait, interes publiko gehiagokoak bait dira euskal gauzak, ez Frantzian bezain pribatuak.

Aditzaren inguruan

Euskarari buruz ihardun ohi direnek, aditza aipatzen dizute berehalaxe; eta euskara ikasten edo ibili garenok, izan dugu buruhausterik franko aditzarekin. Baina ez guk bakarrik. Beste batzuri ere, burua ederki endreatzen die. Trantsitiborik badago, *ez dago*, edo zer *dago*, euskaraz? (ik. or. 69, 71, 83, 141...). Vinsonek euskal eta siro-arabiko aditzak alderatzen dizkigu (30); geroxeago van Eys puntu berera sartzen da (37-38)...

Eztabaida asko aditzaren inguruan. *Deik+n/deyen* dela eta, laster sortzen dira (1, 16, 30, 70...) Vinson, van Eys artean diferentziak; handik hara, *dazat*, etab. ingurukoak (37, 47...); Bonapartek interbenitzen du (44, 51...), eritziak kontraeritzia dakar: ...Berichtigungen, Berichtigungen und Zusätze, Notes sur certaines assertions de M. van Eys concernant la langue basque, Nouvelles Notes sur des nouvelles assertions de M. van Eys, Corrections des «Notes» du Prince L.-L. Bonaparte, Corrections des prétendues «Corrections» faites par M. van Eys des mes premières «Notes», Nouvelles corrections des «Nouvelles Notes» du Prince Bonaparte... Jira eta bira.

Kuriositate bat: Duvoisin kapitainari ez zaio batere gustatu, Vinson eta, Bonaparteren aburuak dudatzen eta eztabaidatzen ausartu izana eta alderdi hartzen du Bonaparteren alde, Vinsonen kontra: «Vinson est un simple faiseur, parlant du basque sans savoir le basque. Il n'a fait que jeter des broussailles aux jambes des linguistes que l'antiquité incontestable de l'idiome des Ibères engageait à étudier le mécanisme unique d'un verbe prodigieux»... Vinsoni ez zaizkio inola ere duda eta diskuta ezinak iruditzen printzearen usteak. Eta «vieux grognard ou grognon de Ciboure» tituluaz ohoratuko du kapitain leiala.

Eztabaidetako tono jenerala da hori.

Eta zer zebiltzan euskaldunak?

Ezagutzen ote zen Euskadin Berlingo aldizkaria? Interesik ba ote zegoen?

Euskaldunek, ez arte eta ez parte hartu dizute *Euskara* aldizkarian: h.d., *Euskara*-k, euskaldunez, euskaldunak gabe ziharduen. Euskaldunak gabe sortu, bizi eta hil zen.

Hemen badago kontzepzio diferentzia handi bat, lehenago Bonapartek eta gero Urkixok, bion artean dauden diferentziekin ere, euskaldun kolaboratzaileak bilatuz eta lanera animatuz, eraman duten jokabidearen artean eta *Euskara*-k daraman jokabidearen artean. Arrazoi askogatik, noski (Berlin urruti zegoen, alemana ez zen apika euskaltzale artean oso ezaguna...), baña, ekipo bat edo lagunarte bat, *Euskara*-ren inguruan, ez zen sortu Euskadin. Urrundik zetorkien aldizkari arrotza besterik ez zen.

Euskara-k iraun duen hamar urteotan, artikulu bat bakarra dago euskaldun batena: gaztelaniar hura, hastapenetan agertutakoa (1887, 3. zenb.) eta guztiz astarloanoa. Alegia, Eibarko José de Puisasolaren *Volapuk eúskaro ò Filosofia del lenguaje*, filosofia baino hizkuntzaren metafisikago dena; edo hizkuntzaren absurdologia, hobeto (euskara, dirudenez, «mintzairatasuna» berbera, edo mintzaira esentzia, edo ez dakit zer, balitz bezala, esplikatzeko bait da: «I es el signo de Dios in posse... Del seno de Dios in posse, Ser absoluto, han nacido los seres limitados..., a su vez, su derizada la voz I-Z, que es el nombre de aquellos. — La extensa y robusta A, grito natural de la salud y de la alegría... es..., y debe a este origen las múltiples funciones que desempeña en nuestra gramática. La E, que no es más que una A debilitada, como la muger es respecto del hombre el lado debil, es el acento natural de la muger y su grito de alegría, y debe a este origen las múltiples funciones que desempeña dentro de nuestra gramática»...).

Ikusten da: holako ideia eta metodoekin, mende hastapenetan ibil zitekeen beharbada, eta barregarri agertu; baina XIX. mende azkenetan ez zegoen zer eginik, hizkuntz jakintzan ere, konstrukzio eta asmazio logiko edo metafisikoen lekuan, ikerkuntz lan metodiko, enpirikoa eskatzen zenez gero. Euskaldunek, lehenengo, mentalitate aldakuntza radikal bat egin behar dute, esplikazio unibertsalak utzi, eta lan pazientziatsu ttipittipian, Urkixo bezala liburu zahar bila, edo Azkue bezala ipuin

zaharren eta hitzen bila herriaren ahotan, edo Barandiaran bezala hezur zahar bila, hasteko. Lan zientifikoan, metodo modernoez. Ez da erraza izango: zeren eta Euskal Herriak, ideologi mailan desesperatuki borrokatu beharrean eta, politiko eta militariki derrotatua eta zangoperatua, ideologi mailan baino ezin jarraituz bere erresistentzia, ez bait ditu gabe errendatuko harmok, alegia, momentuko bere larritasun politiko-apologetikoari hobeto datozkion metodo ideologizatuak (orain politikan egiten ari garena).

Puisasolaz aparte, ez da ikusten euskaldun inoren lumarik *Euskara*-n, Duvoisinena ezpada, gutun llabur batetan eta inoren galderari erantzunez orduan¹. Bazkide bilakatzeko asmoa agertu zuten lehenengoan artean Intxauspe aipatzen da behin; gero ez da inon haren izenik gehiago ageri, kuota pagatzen dutenen artean eta ez zela asmoetatik aurrera joan, pentsatu beharko dugu. Gauza bera gertatzen da Unamunorekin (1887), interesa erakutsi eta aztarnarik utzi gabe ezkututzen bait da hau ere. 1893an harpidedun bat aipatzen da Euskal Herrikoa: Julio Urkixo; eta urte berean, Paristik, d'Abbadie abonatzen da: baina, dirudienez, hauk ere urte beterako bakarrik. Marzelino Soroak 1886ko urriaren 29an urteko kuota pagatu zuen, Berlingo «Baskische Gesellschaft» edo Euskal Elkargoaren bazkide eta «kofundatzaile» bilakatuz, Estatutuak (ik. 3. paragrafoa, 2. parrafoa; 10 Mk. zen pagabeharra) erabakitzen bait zuen, inskribatzen ziren lehenengo hamarrak «kofundatzaile» izanen zirela («droit au titre de membres fondateurs de la Baskischen Gesellschaft»). Baina, lehenengo urtea pasa, eta Soroak ere ez zuela bere bazkidetza berritu, ematen du... Inor ez zen gelditu.

1896: agur samina

17. zenbakian, 1896ko uztailaren 1ean, zuzendari bezala K. Hannemann ageri da oraindik aldizkari buruan. Baina lehen orria domeinatzen, marko beltz eta letra handi beltzetan, planaren erdi-erdian, Karl Hannemann heriotza iragartzen da. Azpian, Hannemann «azken hitzak» bazkideei. Adiera doblean, azken hitzak, ikusiko duzunez.

Hannemann hori, ez dakit zein genuen. Baina euskaldunon miresle handia, nolanihi ere. Basko-iberista. *Euskara*-ren 6. zenbakian, luze dihardu euskal herriari buruz, ehundaka urtetako gerra eta borrokatari «bere bakezaletasuna eta ohitura patriarkalak, balio heroiko batekin» elkartzten jakin omen duen herriaz.

Hemen (or. 44) espreski esaten da, zoritxar guztien gainetik, egungo euskalduna «monumentu» bat dela eta bere asaben antz-antzekoa. Euskal herriari mendeak zehar eraso izan dioten herriei, «barbaro» derizkie. «Baina euskaldunak arrazoi guztia-rekin harro senti daitezke beren asabez, eta zihur egon daitezke, haien oroimena ez dela galduko historian, eta guk haietaz deihadarka hotsegin genezakeela: haien lur honetako egunen oroimena ez da Eonetan [sekula] galduko!», bukatzen du patetiko-apokaliptikoki Hannemannek bere 1889ko —esposizio baino gehiago— laudorioa.

Ez zuen asko ezagutzen euskalduna! Beharbada, euskalduna barik, euskaldunaren bere ideia maitatzen eta miresten zuen? Majo desengainatu da, behintzat... 1896an ondo bestela mintzatu da, hil bezperan:

Gure bazkide ohoragarrioi

Euskararen zenbaki honekin diegu entregatzen gure bazkide guztiz estimatuei azken zenbakia, duela orain hamar urte sortu genuen eta harrez gero ahalegin eta sakrifizio handi artean aurrera eramandako aldizkari honena. 1886.ean gure Elkargoari bizi eman genionean, bagenuen itxaropenik, hark herriak behintzat bozkarioz agurtuko zuela, noren interesak errepresentatzera bait zetorren, etorri eta letraduren batzu bederen gure Elkargoan handik sartuko zirela. Esperantza hura, zoritxarrez, ez da bete. Euskaldun Jaunetatik bat bakarra bera ez da, haien historiaren, hizkuntzaren, etab. aldeko, gure ahaleginei, bere partehartze iraunkorrez, ezagumendurik erakusten dignatu. Agian pagabeharra izan da kausa! Triste da, herri bat, bere hizkuntzagatik berotzeko adina anbizio-tsurik ere ez izatea eta ergel zozoilo eta indiferente, hil-artean-bizi, bizitzea. Holako herria mendeak zehar, herrien kartatik garbitu izaten bada eta galtzen bada harekin haren hizkuntza ere, ondo irabazia du bere patua. Euskaldunek, ez adorerik eta ez oldarririk izan dute, beren independentziari eta askatasunari eusteko: hori erakusten du haien historiak, haien menperakuntzak albo herrien pean. Haien esaldi harroa: «Naiz euskaldun», orain artean ez da haize berriketa hutsa baino gehiagokoa agertu. Haien asaben bikain zolitasuna, beren hizkuntza filosofikoki ongi trabatuak erakusten du. Asaba zangarrek, iloba kiskilak ekarri dituzte horratio! Le-poraino gaude horiekin!

Ezagutza, gure ahaleginari, zinez poztu gaituena, nazio guztietako jakintsuek (euskal naziokoek izan ezik) erakutsi ditute oparo, eta guztiei diegu bidaltzen gure eskerrik askoa bihotz-bihotzez hemendik.

Agur samin honekin hil zen euskaldunen adiskidea eta hil zen *Euskara*.

Desengainuz beterik, baina ez hain garratz, hersten ditu Linschmannek aldizkariaren azkeneko lerroak, «noizpait, etorkizunean, baldinkizun hobetan, honen antzeko beste Elkargo batek fruitu gogo-betegarriagoak eman ditzan esperantzaz».

J. A.

¹ **Altabizkargo Kanta** nola sortua den esplikatzeko, hain zuzen. Hona Douvoisinen erantzuna: «Cibore, 14 Decembre 1888. Monsieur, vous voudriez savoir mon opinion sur l'origine du chant basque d'Altabizcar. Mais puisque vous connaissez le compte-rendu fait par M. Webster, vous savez déjà que ce chant a été composé par M. Garay de Monglave, en Français, et traduit en assez mauvais basque par un cousin que j'avais à Paris. Voilà le gros de l'affaire: J'y ajouterai peu de chose. Quand un groupe des Basques réunis veulent faire des accords sur un air de cantique français: 'Tout n'est que vanité, Mensonge, fragilité, & 'Or, cet air peut être chanté sur les mots: 'Un, deux, trois, quatre, cinq, six, sept, huit, neuf et dix, &'. Cette coincidence a mis en verse M. Garay de Monglave qui a voulu en tirer gloriole». — **Milla Euskal Olerki Eder** liburuan, «Milia Lastur» eta «Perutxoren kanta» artean sartu zen «Altabizkargo kanta» hori, arrazoi beretan harrigarri batekin: bide ona, guti ikasi dugunari gaizki ikasten duguna eransteke.